

01

”

# UNIBERTSITATE ESPARRUKO ELKARTEEN SARERAKO HURBILKETA



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua



Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

Lagundu dute:



# 01

# UNIBERTSITATE ESPARRUKO ELKARTEEN SARERAKO HURBILKETA

## 0. AURKEZPENA

Txosten hau EGKk 2008ko maiatzetik abendura bitartean garatutako prozesu baten ondorio da, eta hezkuntza formaleko eta, hain zuzen ere, unibertsitate esparruko elkarteetan aktiboki parte hartzen duten gazteentzat egina.

Prozesu horren bidez, eta jarraian deskribatzen diren helburuen, burututako ekintzen eta xede kolektiboarekin ezarritako harremanen bidez, unibertsitate esparruko gazteen egungo errealitateari buruzko deskribapen adierazgarri samarra lortu nahi zen; giroa aztertu, errealitate beraren ikuspegi desberdinen berri izan eta, batik bat, loturak edo komunikazio bideak ezarri nahi zen, eta lotura edo komunikazio bide horien bidez, ikasleen mugimenduaren ezagutzari eta ulermen aktiboari eutsi.

Kolektiboa gazteek errealitate jakin batekiko (hezkuntza sistema) parte hartzeko, sortzeko eta konpromisoak hartzeko gune garrantzitsua denez, eta horrez gain, hezkuntza arloko ereduak, funtzionamendu sistemak eta politikak aldatzen ari direla kontuan hartuta, gazteen partaidetza eta erantzukizuna (haien bizitzako aldi erabakigarri batean) eragiten eta sustatzen dituen sarea ezagutzeko eta ulertzen saiatzeko erantzukizuna baloratzen da.

Prozesua garatzeko aukeratutako denbora aldia mugatuta zegoen. Beraz, helburua ez zen kolektiboaren azterketa integrala eta garrantzitsua egitea, baizik eta kolektibo hori zeinen anitza den neurri batean adieraztea eta errealitate horretan ahal dela sakontzea. Horretarako, mugimendu horien beraien ahotsaren bidez, esparru hori zer egoeratan dagoen jakin eta kualitatiboki deskribatzen saiatu gara.

Prozesua egiteko, aztertu dugun mugimenduko elkarteekin elkarrekintzan aritu gara une oro (ondoren deskribatuko ditugu elkarte horiek); partaidetzazko ikerketa egiten saiatu gara une oro, baita ikerketa horren xede talde hartzailea, balorazio eta egin beharreko ekintza ororen subjektu aktiboa izaten ere.

# 1. PROZESUAREN HELBURUAK

Hasierako helburu orokorra honako hau zen: “Hezkuntza Sistema Formaleko ikasleen partaidetza eta elkartegintza sustatzea”.

Behin lan esparru espezifikoa abian jarrita, lan praktikoaren ardatz izan diren helburu zehatz hauek finkatu dira:

- EAEko ikasleen elkartegintza maparen berri izatea.
- Gazteek unibertsitate dinamiketako partaidetzarekiko zer jarrera duten jakitea eta jarrera horiek aztertzea.
- Gazteek egungo hezkuntza sistemarekiko zer kezka, itxaropen eta ardura dituzten jakitea.
- Ikasleen eta elkarten sarearen arteko lotura ezagutzea eta aztertzea.
- Gazteen, ikasleen elkarten, eta administrazio eta erakundeen arteko harremanak nolakoak diren jakitea.
- Baterako koordinazio eta ekintza estrategia bat, lan talde bat eta abar sustatzea, baterako diagnostiko bat lortze aldera.
- EGKk kolektibo horren ekintza babesteko, sendotzeko eta/edo errazteko aukerak eta moduak aurkitzea.

\*\*Argitu beharra dago “berri izatea, aztertzea, jakitea” ez dela esparru horri buruzko ezagutza osoa izatea. Izan ere, denboran mugatuta dagoen prozesu batez ari gara. Horrek esparru horri buruzko ikerketa, dokumentazio eta/edo sakontze erreala edo erabakigarria egitea eragozten du. Horrenbestez, jakiteaz ari garenean, ezagutzak eta kontzeptuak zabaltzeaz, eta esparruak, pertsonak eta taldeak aurkitzeaz ari gara.

Ez dugu ezagutza deskribatzailek eta dokumentaturik egin. Hain zuzen, ikasleen bizipenei buruzko ezagutza informal eta natural bat egin dugu; hala ere, informazio erabakigarria ematen digu, ikasleen iritzia adierazten dutenengandik zuzenean lortu dugulako. Gainera, kolektiboen artean harreman eta lotura berriak ezartze hutsak ezagutza horren zati handi bat ekarri du.



## 2. UNIBERTSITATE ESPARRUKO ELKARTEEN SAREA

### 2.1. SARRERA

Prozesuaren helburu nagusietako bat unibertsitate dinamika ulertzea zen; Euskadiko ikasleek elkartegintzaren bidez benetan zer-nolako parte hartzea zuten ulertzea, alegia. Lehenago azaldu dugunez, gure unibertsitateetan dauden elkarten lagin adierazgarria lortu genuen; adierazgarria, arestian esan dugunez esparru berean oso xede desberdinak dituzten askotariko pertsona taldeak aurkitu ditugulako. Elkarte horien guztien ezaugarri komuna ikasle mugimenduan aritzea da. Eta unibertsitateen barruko elkarrekintzak eta haietako gazteen egoera ulertzeko, ikasleen beraien iritzietan eta adierazpenetan oinarrituz, ikasle mugimendua zen gure aztergai nagusia.

Argitu beharra dago lagin taldean zenbait ekintza esparrutan jarduten duten elkarteak zeudela: Bizkaiko lurraldean soilik jarduten dutenak, Euskal Herria osoan jarduten dutenak, lurralde batean baino gehiagotan jarduten dutenak... Hortaz, azterketa honen ondorioak Arabara eta Gipuzkoara ere heda daitezkeela uste dugu; izan ere, hezkuntza sistemako ikasle dinamikak, egiturak, parte hartzeko moduak eta egoerak antzekoak eta paraleloak dira, prozesuan parte hartu duten elkarteek beraiek azaldu dutenez. Horrek ez du esan nahi lurraldeen artean aldeak ere badaudela uste ez dugunik. Alabaina, hasierako hurbilketa eta ezagutza prozesu honetan, hori ez da beharrezkotzat jotzen. Gainera, ez dago konparaziozko azterketarik egiteko baliabiderik, ezta denborarik ere.

### 2.2. UNIBERTSITATEKO PARTE HARTZEAREN DIMENTSIOAK

Euskadiko unibertsitateen mapa zabalean dauden elkarte, erakunde eta mugimenduaren tipologiari dagokionez, sailkapen edo deskribapen bat baino gehiago egin ditzakegu. Baina erakundeen sailkapena egin aurretik, komeni da ikasle mugimenduak lortu nahi dituen helburuak aipatzea; izan ere, elkarten arteko aldeak nabarmenak izan arren, unibertsitate elkartegintzaren bidez lortu beharrekoari buruzko ikuspegi bera dituzte elkarte horietako askok, baita eginkizun bera ere. Horrez ez du esan nahi elkarte guztien HELBURU guztiak jorratuko ditugunik. Elkarte gehienek, beren eguneroko lanaren barruan, ILDO ESTRATEGIKO hauek dituztela azalduko dugu.

## DIMENTSIO SOZIO-POLITIKOA

- Ikasleen errealitatearekin eta interesekin bat datozen aldaketak, hobekuntzak eta eredu alternatiboak aldarrikatzea, defendatzea eta eskatzea.
- Hezkuntza sistemaren aldaketan eragina izatea, sistema horretan protagonistak baitira. Horretarako, kolektiboaren iritzia eraginkortasunez txertatu nahi dute unibertsitate sisteman.
- Unibertsitate dinamikaren eta gazteen lan eta gizarte bizitzaren arteko mendekotasuna erakustea; beraz, horrek sistemaren barruan dituen ondorioen berri ematea.
- Hezkuntza eredu alternatiboak eta partaidetzazkoak sustatzea eta eraikitzea.

## KUDEAKETA, DINAMIZAZIOA, LAGUNTZA DIMENTSIOA

- Ikasleen eskubideak eta interesak sustatzea eta babestea, eta kolektibo horren eta, bereziki, fakultate bakoitzaren egoera eta errealitatea.
- Unibertsitateko ikasleak beren ibilbideko etapa guztietan orientatzea, informatzea eta laguntzea.
- Arlo akademikoari laguntzeko edo hura osatzeko jarduera eta/edo zerbitzuak eskaintzea.
- Ikasleen eta erakundearen edo botere organoaren arteko bitartekotza lanak egitea, parte hartzeko aukerak eta bideak ugaritzea, eta ikasleak ordezkatzeko.

## HEZKUNTZA ETA PARTE HARTZE DIMENTSIOA

- Unibertsitatearen barruan sentimendu eta giro kolektiboa eta komunitarioa sustatzea/indartzea.
- Ikasleak gaitzea, heztea eta haiei jabeak ematea, subjektu aktiboak eta kontzientek izan daitezen, eta beren errealitatean eragina izan dezaten.
- Ikasleek ahalmen kritikoa eta ekimena sustatzea, haien esparruan.

Taldeak zer helburu dituen eta zer xede nagusi duen, asko aldatzen dira haren jardueren kokapen eta presentzia fisikoak, haren metodologia eta tresnak. Taldeak hainbat baliabide sorrarazi nahi ditu, zenbait erantzun eragin, etab. Hala ere, egia da xede guztiek elkar osatzen dutela, mugimenduaren ekintza orokorra sendotzeko. Horri guztiari esker, unibertsitatearen barruko egoerei erantzun ahal izango zaie: txiki nahiz handiei, orokor/kolektibo nahiz espeziako/indibidualei. Taldeek balioetsi egiten dute xede eta jarduera horien garapena, eta horrez gain, beharrezkotzat jotzen dute, eta talde bakoitzak badaki zein funtzio eta zer ekintza-politika dituen, eta beharrezkotzat eta osagarritzat jotzen dituzte beste taldeenak. Ez dago honetaz zalantzarik: talde gehienek ekintza-jarduerak aipatutako dimentsio bat baino gehiago hartzen ditu, intentsitate handiagoz edo txikiagoz. Mugimenduko erakundearen tipologia taldearen xedeei dagokie, baita antolamendu eta funtzionamendu moduari, xede publikoari eta ekintza jarduerari.

## 2.3. ELKARTEGINTZA TIPOLOGIAK\*

Jarraian deskribatuko ditugun elkarteak prozesuan zehar topatu ditugunak dira. Saillapena elkartearen beraien deskribapenaren arabera da, gutxi gorabehera. Dena dela, taldeak ez dira mota batean soilik sartzen; izan ere, zenbait funtzio mota izan ditzakete. Aurrerago, prozesuan parte hartu duten taldeen ezaugarriak deskribatzean, ikusi egingo dugu. Azpimarratu behar da, jakina denez, gazteek osatutako eta ikasleek borondatez kudeatutako elkarteek ari garela, zer kudeaketa estilo eta modu dituzten, zer pertsona mota diren haien zuzeneko ekintzaren xede eta zer laguntza zer laguntza maila jaso dezaketen erakundeetatik (baliabide, laguntza eta arretari dagokienez). Elkarteekin eta unibertsitate esparrua ikertzen ari diren beste erakunde batzuekin egindako elkarrizketetan zehar nabaritu eta aurkitu dugunaren arabera, baita esparru horretan garatzen ari diren ekimen, artikulatu eta jardueren arabera ere.

Hasierako saillapena egitean eta elkartearen beraien deskribapenak kontuan hartuta, bi multzotan antola ditzakegula ikusi genuen. Multzo horietako batean, fakultateetako kultura talde eta elkarteak daude, hezkuntza sistemaren esparru politikoak edo sozialean sekula ere sartzen ez direnak. Beste multzoan, berriz, gainerako elkarte, hautagaitza, sindikatu, talde eta asanblada sartzen dira; zalantzarik gabe, azken multzo horretako erakundearen helburu eta/edo lan lehentasunetako bat unibertsitate sistemari dagozkion gai politikoei heltzea da. Baina saillapen hori behin-behinekoa eta mugatua da. Eta muga hori, kontaktatutako elkarte guztiei dagokienez, alde handi gisa adierazten da, baina saillapenean gehiago sakontzeko bidea ematen digu. Orain, elkarteak bereiziko ditugu. Bereizketa horrek errealitatearekiko fideltasun handiagoa edo txikiagoa izan ditzake, baina argi eta garbi, unibertsitateetan aurkitzen dugun talde bakoitzaren oinarriko ezaugarriak bereizten laguntzen du.



2009KO EKAINA

UNIBERTSITATE ESPARRUKO ELKARTEEN SAREAKO HURBILKETA

90

\* Saillapen honek errealitate partzial samarra adieraz dezake. Dena den, lehen esan dugunez, multzo batean saillatu ditugun talde batzuek beste multzoko taldeen ezaugarriak dituzte, eta gerta daiteke beste talde batzuek, multzo jakin batean egonda ere, multzo horretako ezaugarriak ez betetzea. Halaber, bi multzo horietan saillatu ezin den talderik ere aurkitu dugu. Talde horiek, eskuarki, zenbait multzotako taldeen ezaugarriak bilduz defini daitezke. Fakultate bakoitzean, karrera jakin bateko ikasleek osatutako elkarteak daude, hain zuzen beren karrerako gai zehatzen inguruan jarduteko. Ezin izan dugu prozesu honetan zehar haietara zuzenean heldu. EHUk elkarte erregistro bat dute (eranskinak), eta erregistro horretan, zenbait kanpusetako eta fakultateetako elkarte ugari daude. Zaila da elkarte bakoitzak zenbateko eragina duen jakitea. Egia da jarduerarik handieneko elkarteekin jarri garela harremanetan, edo harremanen edo kontakturen bidez lotuta daudenekin.

## IKASLE ORDEZKARITZARAKO TALDEAK EDO HAUTAGAITZAK

Talde batzuk fakultate bakoitzeko ikasle kontseiluetan edo ordezkaritzetan sartzeko asmoz sortzen dira, ikasleak ordezkatzeko eta haien eskubideen alde lan egiteko. Talde horiek hauteskunde programa bat sortzen dute, beren jarreraren berri emateko eta fakultateko errealitatearen (ikasgaiak, hezkuntza planak, irakasleak, egutegiak, baliabide materialak, sarbideak, guneak, kudeaketa, hizkuntzalaritza...) aurrean zer-nolako ekintzak egingo dituzten azaltzeko. Talde horiek, beren jarduerarekin, aldaketa zehatzak sustatu nahi dituzte; eskuarki, teknikoak edo akademikoak. Horrez gain, ikasleak orientatu eta haien lagundu nahi diete erakundearen aurrean, zenbait egoeratan moldatzeko moduetan. Zuzeneko kudeaketa lanak egiten dituzte, ikasleen eta erakundearen (irakasleak, errektoretza, etab.) artean bitarteko izaten saiatzen dira, eta gainera, ikasleei informazioa edo prestakuntza emateko jarduera edo kanpaina zehatzak ere egiten dituzte fakultateen barruan. Talde horietako gehienak ez dira oso handiak kide kopuruari dagokionez (taldearen eta fakultate bakoitzaren arabera da hori), eta haien jarduera, neurri handi batean, zentroko ikasleek bertako hauteskundeetan ematen dien laguntzaren arabera da. Ikasturte bakoitzean garatzen dute beren ekintza, baina urte gehiagoko programa izan dezakete.

## KULTURA TALDE EDO ELKARTEAK

Talde batzuk eskaintza akademiko ofiziala osatuko duten interes orokorreko jarduerak garatzeko sortzen dira. Oro har, fakultate jakin batean sortzen dira, eta karrera jakin bat ikasten dutenentzat prestatzen dute beren eskaintza, prestakuntza aukerak handitzeko, lanbidearekin lotutako kontuetan orientatzeko, eta jarduera lasaiak antolatzeko, ikasleen arteko harremanak edo haientzako gune komunak sustatze aldera. Eskuarki, garatu nahi dituzten jarduera eta/edo kanpaina zehatzak planifikatzen dituzte ikasturte bakoitzean, eta fakultateko ikasle kontseiluan aurkezten dituzte beren proposamenak. Kontseilu horrek, kontseilu zentralaren bidez, proposamen horiek burutzeko beharrezkoak diren baliabideak emango dizkie, ala ez. Haien ekintza eremua haien zentroa edo fakultatea. Egia da zenbaitetan antzeko taldeekin edo elkarrekin lotutako karrerretako taldeekin jarduera komunak egiten dituztela, edo ekintza orokorragoak, baina haien xedea bakoitzaren zentroko ikasleentzako jarduerak egitea da, haien interes eta eskariei erantzutea. Ez dute inoiz ikasle ordezkaritzako organoetan parte hartzen. Alabaina, talde horietan, ordezkaritzako organoetan parte hartzen duten taldeetako beste pertsona batzuk egon daitezke.

## KUDEAKETA TALDE EDO ELKARTEAK

Ikasleek unibertsitatean egiten duten beste jarduera mota bat baliabide edo zerbitzu zehatzak kudeatzea da. Horrelako taldeek, oro har, lan orientazioarekin eta txertatzearekin lotutako baliabide edo zerbitzuak kudeatzen dituzte (pertsonal profesionala, ikasleen eta enpresen bitartekotza, nazioarteko trukea...). Ez dute inoiz ikasle ordezkaritzako organoetan parte hartzen. Alabaina, talde horietan, ordezkaritzako organoetan parte hartzen duten taldeetako beste pertsona batzuk egon daitezke. Hau da gutxien aztertu eta alderatu dugun arloa; izan ere, oso izaera espezifikoak du, eta oso txertatua erritmo akademikoaren barruan. Gainera, denbora ere muga nabarmena izan da. Dena den, ikasle elkartetzat hartzen dira ofizialki.

# UNIBERTSITATE ASANBLADAK

Berez, asanbladak ez dira elkarteak, funtzionatzeko sistema bat baizik. Alabaina, unibertsitateko ikasleen arteko ohiko fenomeno dira asanbladak; ez dute militantziarik eskatzen, ezta jarrera jakinik ere, hausnarketa ekintzan parte hartze aktiboa baizik. Edozein gizarte asanbladaren ohiko ezaugarrien arabera funtzionatzen dute. Ez dute egitura berezirik zehazten ez hartzen; ez funtzionatzeko, ez koordinatzeko, ez erabakiak hartzeko. Ikasleen elkarteak baino ez dira. Maiz biltzen dira kideak, denak ikasleak direnez gertaera, egoera eta errealitate komunei buruz hausnartzeko, eta haiek guztiak zalantzan jartzeko. Ez dute berezko ideologiarik, haien barruko pentsamenduak eta diskurtsoak anitzak izan baitaitezke. Ez dute inoiz ikasle ordezkariatzako organoetan parte hartzen. Alabaina, talde horietan, ordezkariatza organoetan parte hartzen duten taldeetako beste pertsona batzuk egon daitezke. Ikasle guztientzat irekitako gunetzat hartzen dute kideek, baina beste erakunde batzuen kide izan daitezke edo beste erakunde batzuekin elkarlanean jardun dezakete. Eta fakultate jakin batean badaude ere, beste fakultate batzuetara hedatu nahi izaten dute beren jarduera. Helburu hauek dituzte, orokorrean: unibertsitatearekiko jarrera kritiko-konstruktiboa sustatzea, iritzia emateko hezteak eta alternatibak diseinatzea. Eskuarki, elkarrizketa, eztabaida eta hausnarketa guneak dira, baina batzuetan, eta gero eta gehiago, protesta, informazio eta aldarrikapen ekintzak sustatzen dituzte, besteak beste. Ezin izan ditugu talde asanbleario guztiak ezagutu, baina ohiko fenomeno da, eta funtzionatzeko modutzat gero eta ohikoagoa.

# IKASLE SINDIKATUAK EDO/ETA ERAGILE POLITIKOAK

Eragile mota honetako unibertsitate taldeek ideologia zehatzagoak dituzte, defendatzen duten hezkuntza eta unibertsitate ereduari dagokionez, eta ildo horretan garatzen dute beren jarduera osoa. Zenbait talde mota daude, tamainari, jarduera eremuari eta lotura sindikal edo politikoari begira. Ez dute zertan ikasleak ordezkatu, denek ez baitute ordezkariatza organoetan parte hartzeko asmorik. Dena dela, oro har, unibertsitate komunitate osoan jardun eta kanpaina publiko handiak egiten dituzte, unibertsitate ehun osoari dagozkion gaiei eta arazoei buruzkoak, eta ez fakultateren batean soilik kezkatzen dutenak. Hezkuntza eta gizarte politiken inguruko mobilizazioak eta aldarrikapenak sustatzen dituzte, eta erakundeek ikasleei dagozkien erabakietan eragina izan nahi dute. Ikasleei informazioa emateko ekintzak zuzentzen dituzte, errealitate jakin batekiko jarrera argia sustatuz eta emandako erduekiko alternatiba zehatzak sustatzen saiatuz. Oro har, epe laburreko eta epe luzeko plan estrategikoak edo programak dituzte, baita jarrera eta ideia argiak ere, beren ekintzen eta kanpainen ardatz gisa.

### 3. IKASLE ELKARTEGINTZAREN DIAGNOSTIKO PARTE HARTZAILEA

Prozesuan zehar, elkarteekin zuzenean izandako harremanaren bitartez, elkarte bakoitzaren iritzia jaso eta mugimenduaren barruko gaur egungo egoerari buruzko diagnostiko orokorra egitea lortu dugu. Jarraian, gairik garrantzitsuenak azpimarratuko ditugu, bai eta unibertsitate talde guztiei dagozkien gaiak ere. Azpimarratu behar dugu AMIA azterketa formulatzerakoan hainbat zailtasun aurkitu dugula; izan ere, nekeza izan da azterketaren oinarria edo oinarrizko edukia zehaztea, talde guztientzat komuna izan zedin, edo gutxienez, talde guztiek azterketan inplikatu edo parte har zezaten. Gune berean –alegia, unibertsitatean– jardutea ez da nahikoa elementu komuna bilera egiteko, eta aukerak eta arazoak aztertzeke.

AMIA azterketa partaidetzaren bidez egitea izan da lanik zailena, eta azterketa hori prozesura egokitu beharra planteatu zen. Ideia argia zen. Azterketa zehatza eta sakona egin beharrean, taldeak biltzeko ahalmenearen eta borondatearen alde egiten zen, partaidetza hori sustatzeko. Horren ondorioz, ezin izan da azterketa prozesu osoa egin, ezin baita horretarako beharrezkoa den erregulartasuna lortu. Ildo horretan, hasieran proposatutako bideragarritasuna jarri behar da zalantzan, taldearen jardura hastean zenbait oztupo aurkitu baikenituen baterako lanari begira; izan ere, alde batetik, taldean ez zegoen identitate kolektiborik, eta beste batetik, aukeratutako uneak eta etapak ez ziren egokiak. Dena den, zenbait ondorio eta irudipen orokor ateratzea lortu genuen.

Azterketak taldeen beraien definizioak jasotzen ditu. Taldearen barruan landu ziren definizio horiek, baina baita banan-banan. Askotariko taldeak direnez, ez ditugu kontaktatutako taldeen elementu komunak atera. Izan ere, azterketaren xedea talde bakoitzak bere aldetik adierazitako elementuen berri ematea zen. Hala ere, talde gehienek emaitza berberak izan zituzten.



## AHULEZIAK

Ez sarerik, ez baliabiderik ez sistemarik interkomunikaziorako. Zaila da denen helburuak lortzea, askotan ez baitira batera bilatzen. Taldeek benetako akordio gutxi egiten dituzte elkarrekin, baina ez dira horretaz bereziki arduratzen.

Ikaslek ez dute parte hartzeko kontzientziarik. Igarotze laburra unibertsitate errealtatetik (ikaslearen bizitza laburra).

Bologna: ikasleek denbora gehiago eskaini behar diote lan akademikoari, eta horrek militante izatea edo parte hartzea eragozten du.

Ez dago iraunkortasuna bermatzen duen ordezko sistemarik, eta horrek, batzuetan, memoria historikoa zailtzen du.

Alderdien arteko borroka, eta ez ideien aldeko borroka. Politizazio partidista ideia trukeari nagusitzen zaio.

Ez dago tresna komunik, edo orain daudenak ez dira guztientzat baliagarriak, edo ez dira taldeek lortu nahi dituzten partaidetza irizpideetara egokitzen.

Ez dute mugimendua alternatibatzat edo baliabidetzat aurkezten, karrerak hasten direnean.

Egitura egokirik eza.

Zenbait talderen lan gehiena hauteskunderi begira dago.

EHUren sistema ereduaren eta funtzionamenduaren ikuspegi desberdinak. Ez dute taldeen eta ikasleen benetako jabekuntzarako aukerarik ematen (parte hartze mugatua).

Pertsona gutxi daude benetan inplikaturik; gutxiegi, alegia, egin beharreko lanarekin alderatuta.

Ikasleen interesik eza. Ez dute taldeen ordezkaritza jardueran interesik. Hauteskunderetan, parte hartzearen ehuneko oso txikia da.

Gaur egun, kontseilu zentralaren jarduera oso txikia da.

Ikuspegi eta iritzi desberdinak daude kontseilu sistemaren baliagarritasunari edo erabilgarritasunari buruz, baita gaur egungo ordezkaritza bideei buruz ere.

Parte hartzeko, elkartzeko eta/edo militante izateko moduak etengabe aldatzen ari dira, eta horren ondorioz, ikasleak urrundu egiten dira.

EHUren laguntzarik eta sustapenik eza (ez du parte hartzea aintzat hartzen, eta are gutxiago, elkartegintza).

## MEHATXUAK

Mugimenduaren irudi sakabanatua eta kohesiorik gabekoa.

Jarduera paralelo gehiegi (besteak beste, deskoordinazioa eta desadostasuna dagoela adierazteko arriskua).

Batasun eta/edo adostasun faltaren erakustaldiak (batzuetan, ikasleak mugimendutik bereiztea eragiten du horrek).

Ikasleek ez dute mugimendurekin bat egiten, edo ez dute bat egin nahi.

Elkarte kopurua txikitzea, kudeaketa txikitzea.

Garrantzi handiko gaiak kudeatzeko ezintasuna, baliabide teknikorik eza dela eta.

Batzuetan, zenbait alderdi politikoren politikek iritziak, ikuspuntuak eta ekintza planak baldintzatzea.

“Full time” teoria, unibertsitate eredu berriarekin lotua. Eredu horren arabera, ikasleek denbora gehiago eman behar dute eskola ordutegitik kanpo, eta horrek asko txikitzen du elkartzeko, militante izateko eta parte hartzeko ahalmena.

Gazteen interesik, ardurarik edo kontzientziarik eza, erakundea bera gaur egun sustatzen ari den ikuspegiarekin lotua (ikasleen lehenetsunaren eta betebeharren egungo ikuspegiarekin lotua).

Hezkuntza politikorik eza, eta asoziazio sistemari, mugimendu asanblearioei eta abarri buruzko ezjakintasun orokorra.

INDARRAK	AUKERAK
<p>Elkarreek programa egokitua eta/edo erakargarria garatzen dutenean, aldaketak lortzen dira, eta ikasleek erantzun egiten dute (unean-unean bada ere).</p> <p>Urtean zehar elkarreek lan handia egiten dutenean, ikasleek laguntza handiagoa ematen diete elkarreei.</p> <p>Zenbait jarduera erabat finkatuta daude, eta deialdi ahalmen handia dute (curriculum lerroetako berezkoenak).</p> <p>Taldeetako kideen arteko harreman onak.</p> <p>Zenbait talderen (gehienak) arteko harreman onak.</p> <p>Alderdi praktiko eta zehatzei (ikasleentzako zerbitzu zehatzak, komunikazioak, bekak...) buruzko ikuspegi komunak.</p> <p>Zenbait gairen inguruan sinergiak batzeko ahalmena.</p> <p>Kontseilu sistemarekiko alternatiboak diren funtzionamendu proposamenak daude.</p> <p>Ekimen koordinatuak edo kooperatibak; zenbait ekintza egiteko, erakunde bat baino gehiago biltzen dituzten plataformak (ikasle adierazpena).</p> <p>Elkarte guztiek zenbait gaitan (LOU, Irakeko gerra...) batera lan egiten dutela adierazten duen ibilbide historikoa dago. – “Universidad Crítica” liburua.</p>	<p>Taldeen sare zabalagoak (autonomikoak, estatalak, nazioartekoak...).</p> <p>Ikasleen kontseilu zentrala (nahiz eta orain eraginik izan ez, baliabidea eta zerbitzua da taldeentzat eta ikasleentzat).</p> <p>Gazteria politiken inguruko beste sare eta plataforma batzuk.</p> <p>Unibertsitate kudeaketako beste organo batzuk (SOU).</p> <p>Fakultateetako ordezkariak.</p> <p>Batera lan egiteko plataformak edo prestakuntzakoak (barrukoak nahiz kanpokoak).</p> <p>Gazte mugimenduak defendatzen edo haiei laguntzen dieten organismoak.</p> <p>Administrazioaren eta beste eragile batzuen dirulaguntzak.</p> <p>EHU (zenbait baliabide ditu taldeentzat, nahiz eta hori gabezien artean adierazi).</p>

## MUGIMENDUAREN SAKABANATZEA

Mugimenduko taldeak deskoordinatuta daude, eta ez dute elkarren berri; izan ere, unibertsitatea, eskuarki, fisikoki urrun eta sakabanatuta dago, ez dago ikasleak eta mugimendua harremanetan jartzeko baliabide eta esparru zehatzik, eta gainera, taldeek beraiek ez dute elkarrekin komunikatzeko asmorik. Haien ustez, gabezia handia da, eta unibertsitateko ikasleen artean elkartegintza eta parte hartzea sustatzeko estrategia oztopatzen du.

Erakunde bakoitzak bere esparruak, bere jendea eta bere jarduerak ditu, eta oso gutxitan –edo inoiz ere ez– jarduten dute elkarrekin. Hala ere, gero eta gehiago, azterketa hori hartzen dute aintzat, eta talde askoren lehentasunen artean, gero eta handiagoa da sinergiak batu beharra. Izan ere, autokritika gisa, sakabanatuta eta, batzuetan, elkarren aurka daudela eta irudi hori ikasleen interesik ezaren arrazoietakoa bat dela onartzen dute, bai eta horrek ikasle mugimenduaren eragina eta garrantzia asko mugatzen dituela ere.

Alabaina, batzuetan batera aritu direla adierazten dute zenbait aurrekari historikok. Polemika soziopolitikoaren testuinguruan gertatu da hori –hala nola, Irakeko 2003ko gerra piztu zenean–, edo hezkuntza sisteman ikasle guztiei zuzenean eragiten dieten aldaketak izan direnean; besteak beste, 2002ko apirilean, LOU delakoa (Unibertsitateen Lege Organikoa, 2001eko abenduaren 24ko BOEn argitaratua) dela eta. Mobilizazio masibo horiek eta gero, koordinatzeko arrazoi garrantzitsurik izan ez dutela adierazi dute. EHUren kasuan, zenbait esparru eta tresna dituzte elkarrekin, baterako ikuspegiak eragin ditzaketen interkonexioak sortzeko; esate baterako, batzar nagusia. Hala ere, unibertsitate talde guztiek ez dute esparru horretan parte hartzen, eta hortaz, batzar nagusia ez da tresna nagusia; izan ere, aukera bat besterik ez da, hainbat aukeraren artean, eta gainera, gauza jakina da erakunde guztiek ez dutela hartan konfiantzarik.

Hainbat deialdi orokor egin dira ikasleak asanbladatan biltzeko, ez sistema ofizialaren barruan, sistema alternatibo batean baizik. Alabaina, adierazi dutenez, ez da aurrera egiterik lortzen. Ildo horretan, barne oztopo nagusietako batekin egiten dugu topo berriro ere: baterako ekintza deitzen duenarekiko aurreiritzia. Izan ere, biltzeko eta iritziak elkarbanatzeko asmoari nagusitzen zaio beti aurreiritzi hori. Alegia, mugimendua politizatuta dago, oro har. Elkarrekin alderdi politikoekin dituzten loturek eragotzi egiten dituzte elkarrekin eta koordinatuta egin daitezkeen ekimen gehien-gehienak. Politizazio horrek eragin handia du unibertsitatearen barruko ekimenetan. Eragin hori unibertsitatekanpoko politikarekin lotuta dago, baina unibertsitate barruko harremanak baldintzatzen ditu. Gainera, elkarrekin onartzen dute askoz erosoagoa eta errazagoa dela bakoitzak bere bideari jarraitzea eta bere programak garatzea, zenbaiten artean ekintzak adostea eta koordinatzea baino. Badago deskoordinazioa eragiten duen beste arrazoi bat. Hain zuzen ere, mugimenduaren barruko eztabaida gehienetan, desadostasuna da nagusi, eta horrek, eraginkortasunik ezaz gain, atsekabea eta eszeptizismoa sortzen ditu.

Gaur egun, zenbait talde baterako ekimenak garatzen ari dira; batik bat, Bolognako prozesuaren inguruan. Baina unibertsitate bizitzako beste gai batzuk ere aztertzen ari dira. Taldeek elkarrekin jardutea garrantzitsua dela eta batera aritzeko asmoa dutela erakusten du horrek; batez ere, ikasle guzti-guztiek dagozkien gaietan. Dena dela, akordio horiek antzeko ideiak dituzten taldeen artea gertatzen dira, edo jarrera jakin bat adosteko ahalmena duten taldeen artean. Aitzitik, talde guztiek onartu eta adierazi dute esparru komunak sortzea garrantzitsua eta onuragarria dela, eta gabezia horrek kalte egiten diela mugimenduaren indarrari eta irauteko aukerari.

## ERAKUNDEEN LAGUNTZARIK EZA

Talde guztiek ez diete erakundeei baliabide zehatzik eskatzen, baina denek bertan daudela kontuan hartzeko exijitzen dute, beren lana unibertsitatea ikasteko esparru gisa eraikitzen laguntzen duela aintzat hartzeko. Unibertsitateak ez du mugimendua sozializazio bidetzat hartzen, ezta ikasleen hazkuntza pertsonala ahalbidetzeko bidetzat ere. Eta hori dela eta, mugimendua sustatu beharrean, hura indartzeko aukera itzaltzen du.

Gainera, unibertsitateak funtzionamendu eredu berrietara eta sustatzen diren aldaketa guztietara egokitu behar du, eta horrek bere helburu nagusitik urruntzen du mugimendua; alegia, gero eta zailagoa da unibertsitatea sortze, heltze eta arduratze kolektiboko esparru bihurtzea. Bizitza akademikoaren alternatiba eta osagarria izatea izan da beti ikasle mugimendua, norberak inguruari buruz bere irizpideak eraiki behar duela sinetsita. Baina hori bizitza akademikoan uztartzea gero eta zailagoa da.

Ikasle mugimenduaren gaur egungo kezka nagusia hau da: pertsonen bizitzako aldi garrantzitsu batean sorkuntzarako eta autonomiarako esparrua gero eta estuagoa dela ikustea. Aldi berean, horrek pertsonen kontzientzia astintzen laguntzen duela adierazten dute, eta beharbada, horren ondorioz, gogoeta egiteko eta gauzak zalantzan jartzeko kezka handitzen dela.

## UNIBERTSITATEAN PARTE HARTZEA

Ikasle mugimenduko taldeen ustez, gabezia eta zailtasun nagusia ikasleek, orokorrean, unibertsitate esparruan parte hartzeko interesik eza da. Interesik eza ez da berria, ezta gaur egungo joera ere; izan ere, historikoki, erronka handietako bat da. Alabaina, mugimenduko taldeek adierazten dutenaren arabera, unibertsitate eredu nagusiak berekin dituen egoerei gehituz gero, ikasleen interesik eza oso gabezia handia da. Aurrekari historikoak daude, eta aurrekari horiek eta gaur egungo egoera alderatuta, ondoriozta daiteke parte hartzea eta aldaketa aldarrikatzea ez direla egungo ikasleen lehentasunetako bat.

Izan ere, hezkuntza sistemak eta, oro har, erakundeek ikasle mugimenduari buruzko informazio eza hedatzen dute. Horrez gain, baliabide gutxi jartzen dute mugimenduaren eskura, eta gutxietsi egiten dute. Hezkuntza sistemak eta erakundeek ez dute ikasle mugimendua parte hartzeko formulatzat sustatzen, eta adierazpen eta ekintza bide mugatua ematen diote.

Askotan, elkarteen eta ikasleen arteko distantzia fisikoak eta ikusezintasunak ere ikasleen kolektiboarentzat erreferentzia izatea eragozten du. Askok adierazi dute fakultatean erraz aurkitzeko moduko egoitza duten taldeek errazago lortzen dutela ikasleen baliabidea eta erreferentzia izatea. Hala ere, eskuarki, ikasleek arazo individual jakinak konpontzen laguntzeko baliabidetzat hartzen dituzte talde horiek, kolektiboki eragiteko edo aldaketa sustatzeko tresna baliagarritzat baino.

Inplikazio maila handiagoa duten pertsonen ustez, jendea mugiarazteko modu bakarra ikasleekin zuzenean hitz egitea da, jarduera zehatzak proposatzea eta ikasleengan banan-banan eragitea, haiengan aipatutako kezka guztiak pizteko. Horrenbestez motibazioa da erronka handia, eta izugarrizko ahalegina taldeentzat, laguntzarik gabe ekin behar baitiote lan hori.

Gainera, parte hartzeko moduari dagokionez, alde handia dago ikasleen artean, eta alde hori oso lotuta dago ikasketekin; hau da, zer fakultate edo zer kanpus aztertzen dugun, parte hartzeko interesa oso desberdina dela ikusiko dugu. Esaterako, Gizarte eta Politika Zientzietako fakultateetan, mobilizazioa eta elkartegintza handiagoak dira.



Autokritika egin ostean, mugimenduak erraz hauteman daitekeen beste oztopo bat dagoela onartu du: berriro ere, ikasle mugimendua alderdi politikoen tresna direlako irudi hedatua eta finkatua. Badirudi mugimenduaren barruan unibertsitate kanpoko interesak mugitzen eta bilatzen direla, eta horrek elkarteen kide ez diren ikasleak eta elkarreak urruntzea eragiten du. Bizitza politikoari dagokionez, gazteen dinamikak aldatuz doazela kontuan hartuta, politizazioaren estereotipoak –alegia, ideien gainetik alderdi politiko jakin batetik lotura dagoelako ustea– askoz gehiago zailtzen du parte hartzeko asmoa edo kezka.

Bestalde, mugimendua gaur egungo gizartearen isla dela nabaria dela esaten da. Ezin da ukatu kolektiboaren eta komunitatearen sentimenduak gero eta garrantzi txikiagoa duela, gizabanakoaren garrantziak zapalduta. Individualismo horrek unibertsitatean ere du eragina: errendimendu akademikoarekin zerikusirik ez duen ororekiko interesik eza, gero eta orokorragoa. Izan ere, gaur egun, lanbide egokia lortzeko modu bakar eta benetakotzat hartzen da errendimendu akademikoa. Gainera, Bolognako prozesuak dakarren unibertsitate eredu berrian, beste zailtasun batzuk aurkitu ditugu, unibertsitatean aktiboki parte hartzeko eta inplikatzeko aukerak baldintzatzen dituztenak.

Zailtasun horiek zenbait taldek aipatzen duten *full time* teoriaren ondorio dira. Hau da, hezkuntza sistemak ikasleen bizitza eta ohiturak bereganatu nahi ditu. Hori dela eta, ikasleek gero eta denbora eta aukera material gutxiago dute boluntario edo militante lanetarako. Horrek esan nahi du pertsonak, unibertsitatean beren prestakuntza eta denbora akademikoa osatzeko, lehen baino denbora libre gehiago eman behar dutela, besteak beste lanerako ohiturak eta gaitasunak sustatzen direlakoan. Ordezkaritza eta partaidetza kontuan hartuta, hainbatek dio individualismo horren ondorioz unibertsitate bizitza apaldu egin dela, ikasleen arteko bizikidetzat txikitu egin dela, eta aisialdia ere txikitu dela.

Argi dago unibertsitatearen eta hezkuntza sistemaren ereduak, eskuarki, alde batera uzten duela unibertsitate bizitzak, harremanek eta elkartegintzak pertsonen prestakuntzarako izan dezaketen garrantzia; izan ere, gaur egungo ereduak hori guztia mugatzen du, eta horretarako, izugarrizko presioa eragiten diete ikasleei, haien interes bakarra ikasketa akademikoa izan dadin, baliabide materialak lortze aldera eta etorkizun pertsonala eta indibiduala bermatze aldera.

## IGAROTZE LABURRA ERREALITATETIK

Unibertsitate mugimenduak unibertsitateko jendeak –hots, ikasleak– osatuta egon behar du, eta haren mendean egon. Identitateari dagokionez, ez da askotariko; ez, bederen, beste kolektibo batzuk bezain askotarikoa. Garrantzitsua da elkarte horietan dihardutenek unibertsitate bizitza sentitzea; hala nola, fakultateetako eta kanpusetako gaurkotasuna sentitzea. Apustu hori koherentea da, eta neurri batean, mugatzailea eta baldintzatzailea. Ikasleek unibertsitatean emango duten denborak hasiera eta amaiera zehatzak ditu. Ez da denboraldi luzea, edo ez elkarte baten barruan prozesu egoki bat egiteko bestekoa; izan ere, prozesu horretan, ikasi eta egokitu behar dute ikasleek, eta inplikatu, eta ondoren, ordezkapen egokia gertatu behar da.

Pertsona gehienek karrera ikasten duten bitartean hartzen dute parte elkarreetan. Eta hori elkarte batek denboraren aldetik izan ditzakeen beharren gainetik dago. Bestalde, unibertsitate bizitza “laburra” izateaz gain, kontuan izan behar dugu inor edo ia inor ez dela karrerako lehen urtean elkarreetan hasten, bigarren urtetik aurrera baizik; hots, ikasleek parte hartzen eman dezaketen denbora are laburragoa da.

Elkarreetako kideek adierazi dutenez, denbora faktoreak eragin handia du pertsonen ibilbide eta konpromisoetan. Horrenbestez, uste orokorra da –eta elkarreetako kideek berretsi egiten dute– elkarreak eta unibertsitatearen barruko mugimenduetan parte hartzeak luzatu egiten duela fakultateko egonaldia. Hori ez da negatiboa derrigorrez, egonaldia gehiegi luzatzen ez bada, bederen. Dena dela, kontuan hartzekoa da ikasle gehienek ustez, eta hori dela eta, batzuk gutxi inplikatzeko dira, eta gehienak ez dira elkarreetara hurbildu ere egiten. Beraz, horrek esan nahi du elkarte edo hautagaitza batean parte hartzea erabaki dutenek, argi eta garbi, apustu pertsonal handia egiten dutela. Alabaina, ezinbestean, karrera amaitzean, inplikaturako pertsona gehienek mugimendua uzten dute. Horrenbestez, ondoriozta dezakegu parte hartzeari uztea ez dela erabaki pertsonala, ez dela mugarik gabeko etapa bat; izan ere, norberak ikasten duen karreraren iraupenak baldintzatzen du.

## BOLOGNAKO EUROPAKO ESPARRUA

Bolognako prozesua, gaur egun, pil-pilean dago unibertsitate esparruan. Ikasle taldeek mehatxutzat hartzen dute, baina zenbait alderdi positibo ere ikusten dira erreforma horretan. Ez dugu horretan gehiegi sakondu, prozesuaren %100 hartuko bailuke, zalantza barik. Azpimarratu behar da, ordea, taldeek eta ikasleek ez dutela ikuspegi orokorrik Bolognako prozesuak berekin dituen erreforma guztiei dagokienez. Puntu komun batzuk daude, unibertsitate kolektibo osoarenak, erreforma hori hezkuntza sisteman txertatzeko metodoari buruzkoak, baina ez dituzte aldaketa guztiak modu berean diagnostikatzen. Erreformari buruz askotariko ikuspegiak daudenez, komeniko litzateke iritzi guztiak sakon aztertzea, baita iritzi horiek eragiten dituzten motibazioak ere. Dena den, Bolognako prozesua da ikasle guztien interesaren ardatza eta kolektiboaren borroka nagusia.

Baina arazo bat dago, ez baztertzekoa: elkarreetako kide ez diren ikasleek ez dakite ezer prozesu horri buruz, nahiz eta taldeek informazio guztia helarazteko ahalegin itzela egin. Ikasleek badakite prozesu garrantzitsua dela, baina gertatuko diren aldaketak handiak izango direlako dakite. Hala ere, esan daiteke horrelako kasuetan informazio gehiegi emateak nahi denaren kontrako erreakzioa eragiten duela; izan ere, ikasleek jarrera pasiboa dutela hauteman dute taldeek. Halaber, egia da beste kasu batzuetan prozesua dela medio ikasleek hainbat ekimeni ekin dietela eta elkarreetako kide ez diren ikasle askok, unibertsitatearen etorkizunagatik kezkatuta, inplikatzearabaki dutela.

Bolognako Prozesua Bolognako Adierazpenaren ondorioz sortu zen. Bolognako Adierazpena Europar Batasuneko hezkuntza ministroak 1999an Italiako hiri hartan sinatutako akordio da, Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparruari hasiera emateko. Europar Batasuneko gobernu guztien adierazpen horrek hasiera eman zion *konbergentzia prozesuari*. Prozesu horrek titulatuaren trukea eraginkorra izatea du helburu, baita unibertsitate ikasketen edukia gizarte eskaeretara egokitzea ere.

Horrek guztiak Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrua sortzea ekarri zuen. Europar Batasunetik kanpoko herrialdeak ere atxiki zitzaizkion prozesu horri; izan ere, herrialde askok XXI. mende honetako lehen urteetan egin behar dituzten hezkuntza erreformen erreferentzia esparrua da. Bolognako Prozesuak, Bolognan sinatutakoaz gain, unibertsitate erreforma osoarekin lotutako alderdiak ere ditu, gizarteko sektore askori dagozkionak. Alderdi horiek –bereziki, unibertsitate publikoen finantzazioari buruzkoak– dira garrantzitsuenak sektore horietarako.

Hauk dira aldaketa nagusiak:

**Kreditu Transferentziaren Europako Sistema (ECTS - European Credit Transfer System).** Kredituak transferitzeko sistema bat da, eskola teorikoetako orduak (hau da, irakasleak emandako orduak eta azterketak egiteko orduak) gain ikasleek egin beharrek lana (minegiak, ikasketak orduak, lanak...) ere aintzat hartzen dituenak. ECTS kreditu bakoitza 25 eta 30 ordu bitartekoa da. Gainera, tituluarri eransten zaio, eta egindako ikasketak deskribatzen ditu, Europar homologatu eta alderatu ahal izateko. Horri esker, ikasleak eta langileak Europako esparruan mugitzea erraztu nahi da, gaur egungo Erasmus programaren moduan. Motibazio hori eta egungo ikasketak planak biziki kontrakoak dira; izan ere, ikasketako sortzeko askatasun osoa ematen die fakultateei, inolako konbergentzia irizpiderik ezarri beharrik gabe.

**Bi zikloko titulazio sistema.** Eredu anglosaxoian oinarrituta, titulazioek bi ziklo izango dituzte. Lehen zikloa orokorra izango da, *Grada (Bachelor)*, 3-4 urtekoa, eta bigarrena, 1-2 urtekoa, espezializatorako, *Masterra*. Adibidez, diplomaturen eta lizentziaturen arteko aldea desagertu egingo da. Espezializazio horrek 2.000 euro inguruko prezioa izango du ikasturte bakoitzeko. Sistema horren helburua ikasleak lan munduan sartzeko prozesua hobetzea, titulazioak modularragoak izango baitira.

**Finantzazioa:** erreformaren xedeetako bat Unibertsitatea berkapitalizatzea da, fondoak dibertsifikatzea; hau da: inbertsio pribatura jotzea, bai ikasleen tasak igoz (Unibertsitate Politikako Biltzar Nagusiak Espainiar Estatuan kredituaren prezioa %8,2raino igotzea erabaki zuen), bai enpresa pribatuen inbertsioen bidez.

**Hezkuntza gastu publikoa txikitzea.** Europako hezkuntza eta ikerketa sistema munduan erakargarriagoa izan dadin.

## 4 ONDORIOAK ETA BALORAZIOAK

Amaitzeko, zenbait azalpen eman behar ditugu, etorkizunari begira interesgarriak izan daitezkeen iritziak. Lan taldeari dagokionez, bereziki, ezin dugu esan aurreikusitako analisia garatzea lortu dugunik, edo lortu nahi ziren ondorio guztiak lortu direnik. Dena dela, ez dugu baterako analisi baten garapen saioari buruzko balorazio negatiborik egiten; izan ere, taldeek kasu askotan ezegokitzat edo inkoherentetzat hartutako aniztasuna/desberdintasuna alde batera utzita, uste dugu unibertsitate bizitzako egunerokotasuna argi eta garbi aztertzeke balio digu.

Egia da faktore horrek hasieran egin nahi genuen analisia egitea zaildu duela. Nahiz eta balorazio positiboa egiten dugun, prozesuari esker ikuspegi garrantzitsuak lortu ditugulako, beharrezkoa da hori kontuan hartzea, etorkizunean esku hartzerik eta/edo kolaboraziorik egin nahi bada. Prozesuan, zenbait gauza geratu dira zehaztu gabe. Haietako bat haren jarraipena da. Horrekin ez dugu esan nahi prozesuaren jarraipena egin behar denik. Hala ere, argi geratu da EGKk hezkuntza formalaren berri izan behar duela, eta alderantziz.

Talde gehienek sortutako loturei eta komunikazio arinari eusteko interesa agertu dute. Txostenean zehar adierazi dugunez, kanpo eraginaren inguruko kezka handia dago unibertsitate esparruan. Kanpo eragin horiek barne erabaki asko baldintzatzen dituzte, eta horren ondorioz, erakundeen arteko konfiantza hondatu egiten da. Kolektiboarekin gauzatu nahi den harreman ororen azpian egongo da beti faktore hori, eta ikasleen benetako parte hartzea sustatzeko dinamikatzen hartu behar da, eta ez alderdi negatibotzat.

Bestalde, onartu beharra dago ez dugula harremanik izan esparru berean jarduten duten gainerako eragileekin; izan ere, informazio interesgarria edo ikuspuntu gehiago lortuko genituzkeen. Interesgarritzat jotzen dugu beste eragile batzuekiko erlazioa, unibertsitate dinamikei (irakasleak, errektoretza, etab.) buruzko benetako ezagutza lortze aldera. Hala ere, kontuan hartu behar da, hasierako prozesua zenez, unibertsitate barruko gazterik aktiboenen egoera, adierazpena eta iritziak bereziki ezagutu nahi genituela.

Amaitzeko, azpimarratu behar da gure ustez, eta taldeek azken balorazioan adierazi dutenaren arabera, zein den prozesuaren lorpen nagusia: kontseiluaren eta ikasle elkartearen arteko ezagutza truke argia eta elkarrizketa hurbila, eta horren ondoriozko elkarrekintza errealagoa.

Kolektibo horri buruzko ezagutza handitzen jarraitu beharra dago, eta komunikazioa finkatu, unibertsitateko egituraren, partaidetza esparruen, eta inplikaturako elementu eta eragile guztien nondik norakoan berri izateko. Horren helburua ez da unibertsitate esparruan eraginik izatea, baizik eta ezagutza handitzea, gazte mugimenduan hain garrantzitsua den eta, batez ere, gazteen bizitzarekin hain lotuta dagoen sektore bat –hots, hezkuntza esparrua– sozializatzen laguntzeko.

# UNIBERTSITATE ESPARRUKO ELKARTEEN SARERAKO HURBILKETA

2009KO EKAINA

18

